

Donostia, 2018ko azaroaren 16a

IDAZKARITZA NAGUSIARI

45 URTETIK GORAKOEN ENPLEGU-SUSTAPENERAKO PROGRAMARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Amaia Martín Garin Irabazi Donostia udal-taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluekin bat, honako KONTROL-MOZIO hau aurkeztu du, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordeak hilabete honetan egindako interpelazioa dela eta.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den urriaren 30eko Gobernu Batzarrean, eta 45 urtetik gorako langabetuen enplegua sustatzeko programaren barruan, 44 lagun aldi baterako kontratazeko erabakia hartu zen –3 eta 6 hilabete arteko kontratuekin–, Lanbideren enplegu-sustapenerako tokiko ekintzen laguntza-deialdiaren bitartez. Hain zuzen, laguntza horren bidez, programa horretara bideratu beharreko 541.134 eurotik 533.506 jaso ziren.

Urtero egiten den programa bat da, baina oso jende gutxiengana heltzen da, eta, beraz, eskasa eta eraginkortasun gutxikoa dela uste dugu. Horrez gainera, langileen batzordeak eta udalean ordezkaritza duten sindikatuek hainbatetan salatu dutenez, aldi baterako enplegura bideratutako programa bat da (hiru eta sei hilabete arteko kontratuak), udaleko egiturazko lanetarako erabiltzen dena. Beraz, aldi baterako enplegarritasun ezegonkorra bultzatzen da, kalitate gehiagoko lanpostu egonkorak sortuko lituzketen enplegu publikoko eskaintzen bidez egin beharrean.

Halaber, kezkarria da 45 urtetik gorako enplegu-programa horretarako egindako inbertsioak izandako bilakaera. 2017an, 45 urtetik gorako langabetuentzako 62 kontratazio egin ziren (3 eta 6 hilabete arteko kontratuak), eta 634.726 €-ko kostua izan zuten. Aurten, berriz, 100.000 euro inguru gutxiagoko kostua izan du programak; horrek esan nahi du lehengo urtean baino 18 lagun gutxiago kontratatu direla.

Datorren urteko aurrekontuak aztertzen dituen txostenaren arabera, genero-ikuspegitik, ez dago emakumeei zuzendutako proiektu berezirik enplegua sustatzeko programa horretan. Txostenean aipatzen diren genero-adierazleen arabera, lanean txertatzeko kontratuen % 41,7 emakumeei zuzenduta daude, eta % 58,3 gizonei. Hori dela eta, emakumeek gai honetan jasaten duten desberdintasuna kontuan izanik, Irabazi Donostiako kideok udal-gobernuari eskatzen diogu neurriak har ditzala emakumeen enplegarritasuna sustatzeko.

Horrekin loturik, gogoratu nahi dugu, aurtengo urtarrilean, udalbatzak aho batez erabaki zuela "gobernu-taldeari eskatzea, Berdintasun Bulegoarekin elkarlanean, eta enplegua sustatzeko Donostia UP! planaren barruan, emakumeentzako kalitatezko enplegua sustatzeko lerro berezi bat gara dezala". Hala eta guztiz ere, batzordean, emakumeen enplegua sustatzeko lerro berezirik zergatik ez dagoen galdeturik, udal-gobernuak aipatu zuen gutxienez kontratuen % 40 emakumeekin egiteko obligazioa duela Lanbideek.

Arrazoi horiek guztiak direla eta, honakoa aurkezten dugu:

KONTROL-MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak eskaera egiten dio udal Gobernuari 2018ko urtarrilean onarturiko mozioa bete dezala, eta enplegua sustatzeko Donostia UP! planaren barruan, hirian emakumeentzako kalitatezko enplegua sustatzeko lerro berezi bat ireki dezala.
2. Donostiako Udalbatzak eskaera egiten dio udal Gobernuari enplegu publikoko plan bat egin dezala, kontratazio zuzen, egonkor eta kalitatezkoak sortzeko beharrezkoa den inbertsioa eginez.

Izpta.: Amaia Martin Garin

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.